

HITZ BITAN

ERRUGBIA. Nahitaez irabazi behar du Swansea

Miarritzek bere joko azkarra egin behar du, galestarren aitzin-multzoa gainditzeko

Koldo Alduntzin | MIARRITZE

Frantziako Ligako talderik one-na da Miarritze, jokaturiko bost partidak irabazi dituelarik. Heineken Kopan (Europako Kopa), ordea, aski irregular dihardu. Bi partida jokatu ditu: Bathen kontra 6-14 galdu zuen, eta Edin-burgon, 6-6 berdindu zuen. Bat-hen kontra ez zuen joko onik egin, eta Edinburgon hobetu zuen, baina jokaldiak gauzatu gabe. Horrenbestez, «absoluto-ki irabazi behar dugu Swanse-an, bestela, adio esango diogu xapelgoari», adierazi du Jean Mitxel Gonzalez kapitainak.

Frantziako Ligan entsegugi-lerik onenak diren arren, Heine-ken Kopan ez dute bat bakarra ere egin, eta hori kezkatzekoa da. Swansea ere nahitaez ira-bazi behar du, eta hala jakinara-zi du Scott Gibbs jokalaria inter-

Swansea-Miarritze

Xapelgoa: Heineken Kopako 3. jardunaldia.

Swansea: Morris, G. Jenkins, Evans; Maullin, Moore; Lewis, Charvis, H. Jenkins; Mertens, Thomas; Lima, Gibbs, Payne, Rees; Morgan

Miarritze: Puleoto, Gonzalez (kap.), Avril; Versailles, Roumat; Milheres, Matiu, Chouchan; Ilharregi, Peyrelongue; Legg, Isaac, Cassin, Bernat-Salles; Brusque.

Epailea: Ireland (Eskozia).

Lekua: Swansea (Gales).

Orena: 18.30.

nazionalak: «Lehian segitzeko Miarritze menderatu behar du-gu bi partidetan, baita Bath ere, eta etxetik at, Edinburgon. Ezin dugu partidarik galdu final-laur-denetan egon nahi badugu».

Swansea finalerdian 1996an

Galestarrak final-laurdenetan aritu ziren iaz, eta 1996an, fina-lerdira heldu zen. Jokoan den



KOLDO ALDUNTZIN

Versaillesek Roumaten ondoan jokatu-ko du; bien artean 230 kilo.

xapelgoan, ordea, 38-9 galdu zuten Bathen, eta bost tantoko aldeaz irabazi zion Edinburgori. «Sarritan aritu gara gure ahalmenetik goiti Heineken Kopan, eta horrela jarraitu nahi genuke, Miarritze mende-an hartuta», gaineratu du Gibbsek.

Galestarrak txapeldunak izan dira Liga Zeltiarrean eta

Cardiff menderatuta. Galesko talderik indartsuena da, eta in-ternazional ugari du: Lima, Morgan, Charvis eta Gibbs, besteak beste. «Aitzinean sen-doak dira, ongi antolatuta dau-de oinarritzko jokoa egiteko, eta hankako joko aparta dute. Epaileek ere eragina ukanen dute, eta horregatik, diziplina

SAILKAPENA

	Pt.	J	I	B	G	al. ko.
1. Bath (Ing.)	4	2	2	0	0	52 15
2. Swansea (Gal.)	2	2	1	0	1	30 54
3. Edinburgo (Esk.)	1	2	0	1	1	22 27
3. Miarritze	1	2	0	1	1	12 20

handiz jardun behar dugu», na-barmendu du Lagisquet entre-natzaile lapurtarrak.

Versaillesek lehen partida jokatu-ko du

Miarritze Swansea da ostegu-netik, eta atzo bi entrenamendu saio egin zituen. Betsenek ez du jokatzetik ukanen, eta Keith Miarritzen gelditu da. Horiez gain, Lievremont anaiak jokatu ezinik daude, eta horregatik, Matiuk beteko du hirugarren le-rroko giltza postua. Bestalde, Versaillesk lehen partida joka-tuko du, kolpatuta egon ostean.

Giblean, Joe Roff ez da ari-ko, Australiarekin baita hilabete baterako. Ondorioz, Legg inge-lesa sartuko da, eta erdian, be-rriro Isaac australiarrak jokat-u-ko du Cassinekin bat eginda. Menieu, Fitzgerald, Curnier, Mazas, Bousses, Bonnet eta Morlaes ordezkotako izango dira.

MENDIA

Pumori 2001 espediziokideak gaur iritsiko dira Euskal Herrira, eta prentsaurrekoa eskainiko dute Azpeitian

Zoritzarreko heriotza gertatu eta gero, eta gorpuen erreskatea bertan behera utzi behar izan ostean, *Pumori 2001* espedizioko kideak Euskal Herrian izango ditugu gaur. Eguerdian iristeko-ak dira mendizaleak Loiuko aireportura, eta, berehala, Azpei-tira abiatuko dira, bertan prentsaurreko bat eskaintzeko as-moz. 13:30ean, hain zuzen ere, izango da hitzordua Azpeitiko Udaletxean. Bertan, Pumorin igarotakoa izango da hizpide. Azpeitiko Udalak bidalitako ohar baten arabera, mendizaleek ez dute deklaraziorik egingo aireportura iristean, eta pren-tsaurrekora itxaron beharko da xehetasun guztiak aurrez au-rre jakiteko.

HARRI-JASOTZEA

Gaur da eguna Landarbidek luzaturiko apustuez mintzatzeko

Apustua jotzeko hiru pro-posamen egin zituen Agux-tin Arruti *Landabide*-k, eta erantzuna jasotzeko zain egongo da gaur, Aiako (Gi-puzkoa) Zuloaga tabernan 20:00etatik 22:00etara. Go-neatxori eta Ostolazari bota zien erronka, eta baita beste edonori ere, horiek biak eta Saralegi kenduta.

ALPINO ESKIA

Gaur hasten da Munduko Txapelketa, Maier eta Kostelic gabe

Soelden (Austria) alpino eskiko Munduko Txapelke-ta hasten da gaur. Kirol ho-netako bi izarrek ezingo dute bertan parte hartu: Hermann Maier austriarrak istripu larri bat izan zuen abuztuan, eta ez da osatu. Janica Kostelic kroaziarra ere lesionaturik dago, eta ezingo da bertan egon.

KARTSAK. Bihar jokatu-ko den Munduko Txapelketa prestatzen aritu zen



MARTIN ATHENSTAEDT / EPA

Michael Schumacherrek kartetan ere korritzen badaki

Michael Schumacherrek, 1 Formulako txapeldu-nak, bere 1 Formula autoa aparkatuta utzi zuen atzo, eta kart zirkuito batera joan zen. Denbora pasatzera ez, ordea. 1 Formulako garaipenak ez dira nahikoa harentzat, antza denez. Munduko

Kart Txapelketa jokatu-ko da bihar Kerpenen, Schumacherren jaioterrian, eta Kerpeneko zirkui-tora gerturatu zen atzo gidari alemaniarra. Korri-tuko duen lasterketa ondo prestatu nahi du, garai-pen berri bat eskuratzeko, akaso.

HITZ ETA PITZ

FRANZ BECKENBAUER
(Alemaniako jokalaria ohia)

«Munduko Koparako sailkatzeko Alemaniaren egoera ez da batere ona»

MIKEL GOÑI
(Aspeko aurrelaria)

«Nire andregaiaren osasunaz kezkatuta, etxezale bat egina nago»

DJALMINHA
(Deportivoko futbolaria)

«Pazientzia amaitzen ari zait; hemen ezin badut jokatu, joan egingo naiz»

JAVIER IRURETA
(Deportivoko entrenatzailea)

«Djalminha libre da kexatzeko, baina zelaian irabazi behar du postua»

ANDRE AGASSI
(Tenis jokalaria)

«100 dolar baietz nire semeak Samprasena irabazi; gen kontua da»